



GORPUTZ-KONPOSIZIOAREN AZTERKETA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

NOLA AZTERTZEN DA GORPUTZ-KONPOSIZIOA?

Pertsona baten gorputza osatzen duten osagaiak (hezurrak, gantza eta giharrek) neurtzen dituen azterketa erradiologikoa erabiltzen da azterketa horretarako.

PROBA EGITEKO EGUNA:

Zure pisua eta garaiera esan behar diguzu.

Ez dago zertan baraurik egon.

ZER DA PROBA HAU?

Proba azterketa-mahai batean etzanda egiten da; 10 bat minutuz geldirik egon behar duzu.

Azterketan ez dizugu batere minik eragingo.

Paziente heldu batek miaketa horietako dosi bakoitzean jasotzen duen erradiazio estimatua toraxeko 1,5 erradiografia sinpleren eta 4,5 eguneko erradiazio naturalaren aldi baliokide baten baliokidea da.

OHARRAK

Proba hau kontraindikaturik dago haurdun baldin bazaude.

Hezur-dentsitometriak erradiazio-dosi oso txikiak erabiltzen ditu. Baina ez da gomendatzen haurdun dauden emakumeentzat. Erradiazio-dosi txikiek ere kalte egin diezaiokete fetuari. Esaziozu osasun-profesionalari haurdun dagoen edo egon daitekeela uste duen.

Komeni da osasun-langileei hauek jakinaraztea:

- Proba hau lehen ere egin dizuten, edo kontraste bidezko azterketa erradiologikorik edo azterketa erradiologiko isotopikorik egin dizuten azken 20 egunetan.
- Halaber, nahitaezkoa da jakinaraztea edozein motatako inplanteren bat duzun aztertu beharreko zonetan.